

Balorezko proposamena:

Gaur egun gurasoek beraien egunerokotasunean umeak zaintzeko dituzten zailtasunak kontuan hartuz, honako zerbitzu hau eskaintzea erabaki dugu. Asteazkenean eta larunbatetan haurrak gure ardurapean uzteko aukera emango diegu, honela, haurrek hainbat balore jasotzeaz gain gurasoen egunerokotasuna erraztuko dugu.

Gure zerbitzuak beste hainbat zerbitzu ez bezala, balore etiko eta akademikoak partekatuko ditu, gure ekintzen oinarrian bihurtuz. Gainera, ikastolekin harremanetan jarriko garenez, gurasoek beraien haurrak hainbat esparru geografiko ezberdinetara eramateko aukera izango dute, beraien mugikortasuna erraztuz, hau da, beraien etxebizitzatik gertuen edo ikastolatik gertuen duten esparrura urbiltzeko aukera izango dute.

Gure zerbitzuak hainbat sail edukiko ditu. Etxeko txikiei dagokionez, arratsaldeko zaintza eta larunbatetan eguneko ekintzak egiteko aukera izango dute. Nerabezaroan daudenentzat aldiz batetik laguntza akademikoa jasoko dute, bestetik aldiz larunbatetan hainbat txango eta ekintzen bitartez ingurua eta gizartearekin harremanetan jartzeko aukera izango dute.

Azkenik, zerbitzuen faktoreei begira ume hauek segurtasun ageri baten barruan egongo dira, hori prezioaren barruan egongo da dagoeneko. Zerbitzuaren prezioa gure zaintzapean pasatzen diren araberakoa izango da, esan beharra dago txango edo proiektuen kostua desberdina izateko aukera izango dutela. Ordu kopuru eta txangoen araberakoa izango da ondorioz.

Merkatuaren segmentazioa

Gure zerbitzua guraso eta haurrei zuzenduta dagoenez, oinarrizko segmentazioa demografikoa izango da. Aldiz, zerbitzuak eskainiko dituen baloreak kontuan hartuz segmentazio soziologikoa eta psikografikoa kontuan hartu beharko dira.

Hurretik aipatutakoaren adibide bat, erabiliko den hizkuntza eta partekatuko den balore bat euskararen erabilpena izango da, honela, haurrak euskaraz hezitu nahi dituzten gurasoei zuzendua egongo da bereiziki.



Erabiliko den segmentazioa demografikoa, soziologikoa eta psikografikoa dela kontuan hartuz, estrategia berezitu bat erabiliko dugu gure zerbitzua segmentazio honen barruan dauden bezeroengana iristeko, izan ere, etekinak ateratzeko, errazagoa izango dugu marketing plan bakarra egitea bezero hauei zuzenduz, beste eskola eta segmentazio psikografiko batean dauden bezeroei zuzentzea baino.

Funtsezko elkarte

Hasteko, eremu geografikoa kontuan hartuz hainbat ikastolekin harremanetan jarriko gara beraien instalazioak erabiltzeko aukera izateko, honela, funtsezko materialak erabiltzeaz gain ikastola horietako ikasle eta gurasoak erakartzeko errazagoa izango da.

Gure zerbitzuaren eskaintzari esker hainbat gurasok haurrak gure esku uzteko aukera edukiko dute beraien lanordua eragotzi gabe hauek beste nonbaitera eramateko beharraren aurrean.

Bestetik, gure txangoak aurrera eramateko erakunde publikoekin harremanetan jarriko gara. Erakunde hauen bitartez proiektu desberdinak aurrera eramateko aukera izango dugu gure ikasleei hainbat balore etiko partekatzeko eta beraiekin ikasi eta ondo pasatzeko.

The logo for Greenpeace, featuring the word "GREENPEACE" in a bold, green, sans-serif font with a slightly irregular, hand-drawn appearance.

Adibide moduan Donostiako *Greenpeace* erakundearekin, Donostiako hondartzak garbitzeko txango bat izango dugu, honen bitartez, ikasleek hondartzaz eta itsasoaz gozatzeaz gain birziklatzearen garrantziaz eta plastikoek gure

ingurunean duten eraginaz ikasiko dute.

Irabazi iturriak:

Hasteko, diru sarrera iturria, bezeroek, kasu honetan gurasoek, beraien haurrak gure eskuetan uztegiatik ordainduko dutena izango da. Kontuan hartuz, eskaintzen ditugun zerbitzuak haurrei zuzenduta daudela, zerbitzu eta txango horien inguruetan ordaindutakoa izango litzateke irabazia.

Esan beharra dago, txangoei dagokionez, prezioa ekintza motaren arabera ezberdina izango dela. Kasu honetan, txangoak aparte ordainduko dira asteburutan gauzatuko direlako eta hauek aurrera ateratzeko beste erakunde batzuekin jarri beharko garelako harremanetan.

Astean zehar aldiz eskainiko dugun zaintzaren prezioak adinaren arabekoak izango dira. Gazteen kasuan altuagoa izango da laguntza akademiko bat jasotzeko aukera izango dutelako. Haur txikien kasuan aldiz, merkeagoa izango da, denbora pasatzeko ekintzak egingo dira: batzuk eskulana, beste batzuk futboleko jolastu,...

Kanalak:

Komunikazio bideei dagokionez, bezeroekin komunikatuak egoteko bulego bat izatea pentsatu dugu. Honela, bai bezeroak informazioa eskuratu nahi badu, bulegora urbidu daitezke, edo bai telefonoaren bidez erantzutea posible izango da.

Honetaz aparte, gure proiektua ezagutarazteko, ekintza desberdinak gauzatuko duten eskoletan, gure zerbitzua zabaltzea izango zen gure estrategia, adibidez, gurasoen bileretan hainbat informazio emanez, gero, interesa duten gurasoak gurekin harremanetan jartzeko.

Gainera, eskoletan ondo egongo legoke kartelak ipintzea gure telefono zenbakiarekin, interesa duten gurasoen deitu ahal izateko, eta baita ere bulego dagon helbidea, urbiltzea nahiago badute. Ikusten badugu eskola jakin batean interesa egon dela, bilera bat antolatu dezakegu informazioa emateko eta hobetu gure zerbitzua ezagutarazteko, horrela, gurasoak hobeto ezagutuko dute zer eskaintzen dugun.

Bezeroekiko Harremanak:

Gure funtsezko bezeroak Donostiako ikastolen gurasoak izango dira. Aurretik aipatu dugun bezala, balore etikoen barruan euskararen erabilera egongo denez, hizkuntza hau erabiltzen duten eta interesa dutenei zuzenduko diegu.

Hasieran ikastolekin kontaktuan jarriko gara, beraien eraikuntza uzteko prest dauden ikastolak gure ideia gurasoei proposatuko diete. Gainera, nahi duten gurasoekin bilera bat antolatuko da gure proiektua azaltzeko eta beraien galderak erantzuteko.

Behin gurekin kontaktuan jarrita, gmail edo telefono bitartez egiten ditugun jardueren informazioa jasoko dute. Urte guztian zehar jarduera desberdinak egingo dira, eta oportetan ikastolak irekiko dituzte gurasoak lan egiten duten bitartean haurrak etortzeko.

Funtsezko baliabideak:

Zerbitzua aurrera eramateko, aurretik aipatu bezala, ikastolekin harremana edukitzeaz gain, gure langileen baldintza minimo batzuk eskatuko dizkiegu eskaintza ahalik eta hoberena izango dela ziurtatzeko.

Langileek, bigarren hezkuntza eta batxilergoko titulazioa eduki beharko dute gazteei laguntza akademikoa emateko. Batxilergoko titulazioa ez dutenen kasuan, ordeko erdi mailako gradu baten titulua eskatuko zaie. Bestetik, hurrekin solasean ibiliko direnez elkarrizketa at pasatu beharko dute guk beraien nortasuna egokia dela ikusteko. Amaitzeko euskarako B2 edo C1 maila eduki beharko dute zerbitzua euskaraz egingo dela kontuan hartuz.

Gure langileen eta ekintzek eskainiko dituzten balore eta laguntzek, zerbitzua aurrera ateratzera eramango dute, izan ere, gaur egun hezkuntzako aspektu hauek geroz eta gehiago hartzen dira kontuan, talde lana edo komunikazioa adibidez.

Funtsezko jarduerak:

Emango diren ekintza nagusiak, eskolekin harremanetan jartzea izango da. Honen bitartez, bezeroak lortzeaz gain, leku finko bat izango dugula ziurtatuko dugu zerbitzua aurrera eramateko. Alde batetik hainbat ikastolekin harremana sendotzen saiatuko gara gure bezeroei esparru geografikoaren arabera aukera ezberdina eskaintzeko.



Bestetik, barne lanari dagokionez, txangoak aurrera eramateko beste erakunde batzuekin harremanetan jarriko gara. Adibidez, gaur egun, egoera ezberdinetan gutxietsiak izan diren emakumeak hobeto ezagutzeko eta egoera aldatzeko ekintzak aurrera eramateko Donostiako erakunde feministekin adostasunak edukiko ditugu.



Hau da, asteburu bakoitzean, sahiatuko ginateke txango mota desberdinak egiten, adibidez, larunbat batean txangoa kiroean oinarrituko da Txuri Urdinera joanez, eta beste larunbat batean, adibidez lehen esan bezala, Donostiako erakunde feministarekin saio bat izatea izango zen helburu.

Kostuen egitura:

Behin ikastolekin kontaktuan jarrita, beraien eraikuntza erabiliko dugu, beraz alokairua ordainduko da. Hala ere, ikastolak bere mahi eta materialak utziko digu,



beraz ez da beharrezkoa izango materiala erosi edo moldatu behar. Gainera, bulego bat edukiko degu bertan dena antolatzeko, elkarrizketak egiteko eta gurasoekin bilerak edukitzeko. Ikastola ondoren nahi dutenentzat monitore batzuk egongo dira etxekolanak egiten laguntzeko edo ume txikientzako arduradunak, horiei ordaindu behar zaie. Gainera, asteburutan ekintza desberdinak egiteko garraioa ordaindu

behar da. Beste aldetik, nahiz eta ikastolak bere material akademikoa eduki guk gure materiala eramango dugu haur txikiek denbora pasatzeko eskulanak egiteko, edo gazteentzako ikasteko materiala eskainiko zaie.

Hasierako inbertsioa gure aurrezkietatik aterako dugu, gutxi gorabehera bost mila eurokoa izango da. Lehen txangoetarako garraioa eta monitoreei diru horretatik ordainduko da, baina ez da dena hasieran agortuko, geroago beharrezkoa bada hortik hartuko da.

Balorazio globala:

Gure enpresak eskainiko duen zerbitzua aztertu eta gero honako balorazio hau egiten dugu. Gure zerbitzua, guraso eta haurrei zuzendua dago. Guraso hauen egunerokotasuna errazteaz gain haurrek denboraz gozatzeko aukera izango dute, helburu bezala heziketa izanik, bai balore etikoak eta bai balore akademikoaz baliatuz, talde lanean jokatzea funtsezkoa izango baita.

Garrantzitsua izango da guretzat erabiliko dugun kanala, batez ere hasieran bezeroak ondo ezagutzeko eskaintzen dugun zerbitzu mota, horregatik, ezinbestekoa izango da esan bezala eskoletan gurasoei emango zaien informazioa, honela, interesa baldin badute gurekin kontaktatzeko.

Gure zerbitzua aurrera eramateko ez da beharrezkoa izango diru kantitate handia, horrek asko lagunduko digu hasierako hilabeteak ondo eramaten. Gainera gure inguruan ez dago inolako zerbitzurik, beraz ez dugu inolako lehiakiderik edukiko, horrela hasteko garaian jende asko interesatua egongo da eta bezero gehiago edukiko dira. Bestetik, gurasoek ikastolaren bitartez informatuko dira, honela beraien balioak gurekin bat egingo dute.